*1. artikulua.*– Honela geldituko da 1/9994 Legegintzako Dekretuko 125.1 artikulua:

«Aurrekontu Orokorren likidazioari buruzko dokumentazioa hurrengo ekitaldiko maiatzaren 31 baino lehen izango dute egina Ekonomia eta Ogasun Saileko zerbitzuek».

*2. artikulua.*– Honela geldituko da 1/9994 Legegintzako Dekretuko 126.1 artikulua:

«1.– Jaurlaritzak bi hilabeteko epea izango du, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ekitaldiaren fiskalizazio-txostena eman ondoren, Legebiltzarrari bidaltzeko Aurrekontu Orokorren likidazioari buruzko dokumentazioa, kasuan kasu eskatuko den Autonomia Erkidegoko finantzazko eta ondarezko egoeraren gaineko alderdiei buruzko informazioarekin batera, lege-proiektu baten bidez eztabaidatzeko eta onesteko».

AZKEN XEDAPENA

«Lege hau argitaratzen den egunean jarriko da indarrean».

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko azaroaren 22a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

*Artículo 1.*– El artículo 125.1 del Decreto Legislativo 1/1994 queda redactado del siguiente modo:

«La documentación relativa a la liquidación de los Presupuestos Generales será elaborada por los servicios correspondientes del Departamento de Economía y Hacienda con anterioridad al 31 de mayo del ejercicio siguiente».

*Artículo 2.*– El artículo 126.1 del Decreto Legislativo 1/1994 queda redactado del siguiente modo:

«1.– La documentación relativa a la liquidación de los Presupuestos Generales, junto con aquella otra información referente a otros aspectos de la situación financiera y patrimonial de la Comunidad Autónoma que se exija en su caso, será remitida por el Gobierno al Parlamento para su debate y aprobación, mediante el correspondiente proyecto de ley, en el plazo de dos meses desde la emisión del correspondiente informe de fiscalización por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas».

DISPOSICIÓN FINAL

«Esta ley entrará en vigor el día de su publicación».

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 22 de noviembre de 2007.

EL Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 6789

204/2007 DEKRETUA, azaroaren 20koa, Euskadiko Unibertsitate Kontseilua arautzen duena.

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoak, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren eginkizunak eta osaera aldatzen du (kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitate Antolamenduari buruzko ekainaren 29ko 19/1998 Legearen bidez sortu zen).

Euskadiko Unibertsitate Kontseilua euskal unibertsitate-sistemaren koordinazio-organoa da eta unibertsitateen gaietan Eusko Jaurlaritzak duen kontsulta- eta aholku-organoa. Organo horrek informazioa trukatze-

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 6789

DECRETO 204/2007, de 20 de noviembre, por el que se regula el Consejo Vasco de Universidades.

La Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, modifica las funciones y la composición del Consejo Vasco de Universidades que fue creado por la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Consejo Vasco de Universidades se perfila como el órgano de coordinación del sistema universitario vasco y de consulta y asesoramiento del Gobierno Vasco en materia de universidades. Es el órgano a través del

ko aukera ematen die Jaurlaritzako instantziei -euskal unibertsitate-sistemaren funtzionamendua bermatzearen erantzuleak diren heinean-, unibertsitateetako instantziei -euskal gizartearen interes orokorrei eragiten dien prestazioa egiten duen zerbitzu publikoa izaki- eta euskal gizarteari berari -unibertsitate-zerbitzuen helburuko hartzailea den heinean-. Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoak, egindako aldaketen bidez, unibertsitatea gizartera gehiago hurbildu nahi da eta, horretarako, gizarteari euskal unibertsitate-sistemaren koordinazio-organoetan parte hartzeko aukera ematen zaio.

Dekretu honen helburua kide anitzeko organo honen araubide juridikoari dagozkion oinarrizko alderdiak arautzea da, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legean jasotako araudi berrira albait arinen egokitu dadin.

Horrenbestez, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenari jarraiki, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluari horren berri emanda, Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluari entzun ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko azaroaren 20an egindako bileran horren gainean eztabaidatu eta erabaki ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Izaera eta egoitza.

1.– Euskadiko Unibertsitate Kontseilua euskal unibertsitate-sistemaren koordinazio-organoa da eta unibertsitateen gaietan Eusko Jaurlaritzak duen kontsulta- eta aholku-organoa.

2.– Euskadiko Unibertsitate Kontseilua, erakundeen eta gizartearen partaidetzarako organo den heinean, informazioa emateaz eta erabakiak hartzeaz arduratuko da.

Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak unibertsitateen gaietan eskumena duen sailaren edo Eusko Jaurlaritzaren gaiei buruz egiten dituen txostenak ez dira lotesleak izango Jaurlaritzarentzat. Gainerako erabakiak, aho batez hartzen direnean, kasuan kasu ematen zaien eraginkortasuna izango dute, baina inolaz ere ez dira lotesleak izango Jaurlaritzarentzat.

3.– Euskadiko Unibertsitate Kontseilua unibertsitateen gaietan eskumena duen sailera atxikita egongo da eta honen aurrekontuen kontura finantzatuko da.

4.– Euskadiko Unibertsitate Kontseilua unibertsitateen gaietan eskumena duen sailaren egoitza nagusian kokatuta egongo da, sail horretara atxikitako organo den heinean.

*2. artikulua.*– Eginkizunak.

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 65.2 artikuluarekin bat etorriz, hauexek dira Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren eginkizunak:

cual debe facilitarse el intercambio de información entre las instancias gubernamentales -encargadas de asegurar el funcionamiento del sistema universitario vasco-, las instancias universitarias -en tanto que servicio público cuya prestación afecta a los intereses generales de la sociedad vasca- y la propia sociedad vasca, en tanto que receptora última de los servicios universitarios. Con las modificaciones introducidas por la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, se pretende además acercar la universidad a la sociedad, facilitando la participación de la sociedad en los órganos de coordinación del sistema universitario vasco.

El presente Decreto tiene por objeto regular los aspectos básicos del régimen jurídico de este órgano colegiado, a fin de facilitar su pronta adaptación a la nueva regulación contenida en la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco.

En virtud de lo expuesto, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, informado el Consejo Vasco de Universidades y oídos el Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria y de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 20 de noviembre de 2007,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Naturaleza y sede.

1.– El Consejo Vasco de Universidades es el órgano de coordinación de sistema universitario vasco y de consulta y asesoramiento del Gobierno Vasco en materia de universidades.

2.– El Consejo Vasco de Universidades, en tanto que órgano de participación institucional y social, tendrá carácter informativo y deliberante.

Los informes que emita el Consejo Vasco de Universidades sobre asuntos del Departamento competente en materia de universidades o del Gobierno Vasco no serán vinculantes para el Gobierno. El resto de los acuerdos, cuando sean adoptados por unanimidad, tendrán la eficacia que en cada caso se les atribuya, sin que en ningún caso puedan ser vinculantes para el Gobierno.

3.– El Consejo Vasco de Universidades queda adscrito al Departamento competente en materia de universidades y será financiado con cargo a sus presupuestos.

4.– El Consejo Vasco de Universidades tendrá su ubicación en la sede central del Departamento competente en materia de universidades, por su condición de órgano adscrito a ese Departamento.

*Artículo 2.*– Funciones.

De conformidad con el artículo 65.2 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, corresponden al Consejo Vasco de Universidades las siguientes funciones:

a) Jaurlaritzari, unibertsitateen gaietan eskumena duen sailari eta unibertsitate bakoitzari aurkezten dizkioten gai guztien inguruan aholku ematea.

b) Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legea garatze aldera ematen diren xedapen orokorreko proiektuen berri izatea.

c) Jaurlaritzak berak jaso aurretik, unibertsitate berriak sortzeko edo onartzeko lege-proiektuen berri izatea.

d) Unibertsitateko ezagutza- eta prestakuntza-premien berri izatea eta ematea, baita alderdi horiei dagokienez dagoen gizarte eskaerari zenbateraino erantzuten zaion jakitea eta ezagutaraztea ere.

e) Unibertsitate bakoitzean ezarritako titulazioen eta ikasketa-planen egoerari eta bilakaerari buruzko informazioa jasotzea eta ematea eta, bereziki, titulazioen sistema goi-mailako irakaskuntzaren Europako sisteman barnera dadila sustatzea.

f) Unibertsitateei elkarren artean informazioa trukatzeko aukera ematea.

g) Unibertsitateek batera jarduteko programak bultzatzea, nagusiki ikerketaren eremuari eta irakaskuntzan eta kudeaketan kalitatea ezartzeko eremuari dagokienez, eta unibertsitateak Europako zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sisteman barnera daitezela sustatzea.

h) Euskal kulturaren arloan beste unibertsitate batzuekiko lankidetza-programak bultzatzea.

i) Unibertsitateek, interes orokorreko programak gauzatze aldera, beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuekin elkarlanean aritu daitezen sustatzea. Bereziki, unibertsitateek enpresekin dituzten harremanak sustatuko ditu eta Jaurlaritzak eremu honetan abiarazten dituen ekimenen berri emango du.

j) Ikasketetarako beken eta laguntzen arloko oinarrizko arauen berri ematea.

k) Oro har, unibertsitateen arteko lankidetzari eta euskal unibertsitate-sistemaren kalitate eta nahikotasunari dagokienez interesgarritzat jotzen diren gaiak ezagutzea, ezagutaraztea eta proposatzea.

l) Unibertsitateen euskal sarea sustatzea, irakaskuntza, ikerketa eta kultura-ekimenak koordinatuta eta unibertsitate horietako ikasleen eta irakasleen mugikortasuna ahalbidetuta, euskara eta euskal kultura indartzearren.

m) Legez edo arauz ematen zaion beste edozein eginkizun.

*3. artikulua.–* Kontseiluko kideak.

1.– Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 66.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Euskadiko Unibertsitate Kontseilua honakoek osatuta egongo da:

a) Asesorar al Gobierno y al Departamento competente en materia de universidades y a cada universidad en todos los asuntos que se sometan a su consideración.

b) Conocer los proyectos de disposiciones generales que se dicten en desarrollo de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco.

c) Conocer, con carácter previo a su elevación al Gobierno, los proyectos de ley de creación o reconocimiento de nuevas universidades.

d) Conocer e informar sobre las necesidades de conocimiento y formación universitaria y el grado de satisfacción de la demanda social en dichos aspectos.

e) Conocer e informar sobre la situación y evolución de las titulaciones y los planes de estudios implantados en cada universidad, y, en particular, promover la integración del sistema de titulaciones en el sistema europeo de la enseñanza superior.

f) Facilitar el intercambio de información entre las universidades.

g) Impulsar programas conjuntos de actuación interuniversitaria, principalmente en los campos de la investigación y de la implantación de la calidad en la docencia y en la gestión, y promover la integración de las universidades en el sistema de ciencia, tecnología e innovación europeo.

h) Impulsar programas de colaboración con otras universidades en el ámbito de la cultura vasca.

i) Promover la colaboración de las universidades con otras instituciones, públicas y privadas, para ejecutar programas de interés general. En particular, promover las relaciones de las universidades con las empresas e informar sobre las iniciativas que promueva el Gobierno en este campo.

j) Informar sobre las directrices básicas en materia de becas y ayudas al estudio.

k) En general, conocer, informar y proponer cuantos asuntos se estimen de interés en relación con la cooperación entre universidades y la calidad y suficiencia del sistema universitario vasco.

l) Promover la red vasca de instituciones universitarias, a través de la coordinación de la enseñanza, investigación e iniciativas culturales así como mediante la movilidad del alumnado y profesorado de las mencionadas instituciones universitarias, a fin de potenciar el euskera y la cultura vasca.

m) Cualquier otra función que le sean atribuidas por ley o reglamento.

*Artículo 3.–* Composición.

1.– De acuerdo a lo dispuesto por el artículo 66.1 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, formarán parte del Consejo Vasco de Universidades los siguientes miembros:

a) Unibertsitateen gaietan eskumena duen saileko sailburua, presidente.

b) Unibertsitateen gaietan eskumena duen saileko sailburuak hautatutako bost kide, horien artean, unibertsitateen gaietan eskumena duen sailburuordea, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko presidenteorde gisa.

c) Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea.

d) Euskal unibertsitate-sistemako gainerako unibertsitateetako errektoreak.

e) Unibertsitateetako edo indarreko legeriarekin bat etorriz sortutako organo baliokideetako gizarte-kontseiluetako presidenteak.

f) Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak izendatutako bi kide.

g) Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurralde historikoetako diputatu nagusiak, edo horien ordezkoak.

h) Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) ordezkari bat.

i) Gizarteko kide bat, unibertsitateen arlokoa ez dena, baina unibertsitateen ordezkari gisa jardungo duena. Kide hau Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren Osokoak izendatuko du, presidentearen proposamenari jarraiki.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Kontseiluko burua.

2.– Dagokien ordezkaritza gorabehera, Kontseiluko kideek une oro unibertsitate-hezkuntzaren interes orokorrak aintzat hartuta gauzatuko dituzte beren eginkizunak eta Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legean adierazitako helburuak betetzen direla zainduko dute.

3.– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko idazkaria presidenteak izendatuko du, Kontseiluko kideen artetik edo unibertsitateen gaietan eskumena duen sailera atxikita dauden A taldeko kidegoetako funtzionarioen artetik.

4.– 1.b) idatz-zatian aipatu den kideen izendapena Eusko Jaurlaritzak egingo du, dekretu bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. 1.f) eta 1.h) idatz-zatietan aipatu diren kideen izendapenak, hurrenez hurren, errektoreak eta presidenteak jakinaraziko dizkiote Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko idazkariari, eraginkorrak izan daitezen. Ondoren, izendapenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira. 1.i) idatz-zatian aipatu den kidearen izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

a) El Consejero o la Consejera titular del departamento competente en materia de universidades, que será su Presidente o Presidenta.

b) Cinco vocales por designación del Consejero o la Consejera titular del departamento competente en materia de universidades, entre los que se incluye al Viceconsejero o la Viceconsejera competente en materia de universidades que será el Vicepresidente o la Vicepresidenta del Consejo Vasco de Universidades.

c) El Rector o Rectora de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

d) Los Rectores o Rectoras del resto de las universidades del Sistema Universitario Vasco.

e) Las Presidentas o los Presidentes de los consejos sociales de las universidades u órganos equivalentes creados conforme a la legislación vigente.

f) Dos vocales por nombramiento del Rector o Rectora de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

g) Los Diputados Generales de los tres territorios históricos que integran la Comunidad Autónoma del País Vasco, o personas en que éstos deleguen.

h) Un representante de la Asociación de Municipios Vascos (Eudel).

i) Un miembro de la sociedad, no perteneciente a la comunidad universitaria, que representará a las universidades, nombrado por el pleno del Consejo Vasco de Universidades, a propuesta de la presidencia.

j) El Presidente o la Presidenta del Consejo Escolar de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Con independencia de la representación que ostenten, los miembros del Consejo ejercerán sus funciones atendiendo en todo momento a los intereses generales de la educación universitaria y velarán por el cumplimiento de los objetivos señalados en la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco.

3.– El Secretario o la Secretaria del Consejo Vasco de Universidades será nombrado por su Presidente o Presidenta de entre los miembros del Consejo o de entre el personal funcionario perteneciente a Cuerpos del Grupo A, adscrito al Departamento competente en materia de universidades.

4.– El nombramiento de los vocales a que se refiere el apartado 1.b) anterior se efectuará por el Gobierno Vasco mediante Decreto y será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco. Los nombramientos de los vocales a que se refieren los apartados 1.f) y 1.h) anteriores serán comunicados por el Rector o Rectora y por el Presidente o Presidenta, respectivamente, al Secretario o Secretaria del Consejo Vasco de Universidades para su efectividad, sin perjuicio de su posterior publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. El nombramiento del vocal a que se refiere el apartado 1.i) será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco.

*4. artikulua.*– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko presidentearen eginkizunak.

1.– Hauexek dira Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko presidentearen eginkizunak:

a) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren ordezkari gisa aritzea eta horren bozeramailea izatea.

b) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko zuzendari gisa aritzea eta horren funtzionamendua egokia dela ziurtatzea.

c) Legeak betetzen direla ziurtatzea.

d) Bilkura arrunt eta apartekoetarako deialdia eta eguneko aztergaien zerrendaren finkapena erabakitzea. Horretarako, kontuan hartuko ditu Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko gainerako kideek deialdia egin baino behar beste denbora lehenago egindako eskaerak.

e) Bilkuren buru izatea, eztabaiden garapena moderatzea eta berauek justifikatutako kariengatik etetea.

f) Berdinketak ebaztea, erabakiak hartze aldera.

g) Batzorde Iraunkorra, Goi Mailako Irakaskuntzaren Europako Sistemaren Bilakaera Batzordea eta, hala bada, lan-batzordeak osatuko dituzten Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko kideak aukeratzea.

h) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren erabakien ziurtagiriak eta aktak ikusi eta onestea.

i) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren Funtzionamenduari buruzko Araudian zehazten den edo kide anitzeko organoko presidente den heinean datxekion beste edozein eginkizun betetzea.

2.– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko presidentea presidenteordeak ordeztuko du hura kanpoan edo gaixorik dagoenean, kargua hutsik geratzen bada eta legezko gainerako zioengatik.

*5. artikulua.*– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko idazkariaren eginkizunak.

1.– Hauexek dira Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko idazkariaren eginkizunak:

a) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren Osokoak nahiz haren baitan sortzen diren batzordeek egiten dituzten bileretan hitz eta botoarekin jardutea, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko idazkari gisa bertako kide batek diharduenean, eta hitzarekin baina botorik gabe funtzionarioren batek diharduenean. Bilera horietako akta egingo du eta, bertan, hartutako erabakiak jasoko ditu; horiek ziurtatu egingo ditu eta erakunde eskudunei edo prozeduran interesatuta dauden erakundeei haien berri emango die.

*Artículo 4.*– Funciones de la Presidencia del Consejo Vasco de Universidades.

1.– Corresponden al Presidente o Presidenta del Consejo Vasco de Universidades las siguientes funciones:

a) Ostentar la representación del Consejo Vasco de Universidades y ser portavoz del mismo.

b) Ejercer la dirección del Consejo Vasco de Universidades y velar por su adecuado funcionamiento.

c) Asegurar el cumplimiento de las leyes.

d) Acordar la convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias y la fijación del orden del día, teniendo en cuenta las peticiones de los demás miembros del Consejo Vasco de Universidades que se formulen con la antelación suficiente a la convocatoria.

e) Presidir las sesiones, moderar el desarrollo de los debates y suspenderlos por causas justificadas.

f) Dirimir con su voto los empates, a efectos de la adopción de acuerdos.

g) Designar los miembros del Consejo Vasco de Universidades que ha de formar parte de la Comisión permanente, de la Comisión de Evolución del Sistema Europeo de la Enseñanza Superior y, en su caso, de las Comisiones de trabajo.

h) Visar las actas y certificaciones de los acuerdos del Consejo Vasco de Universidades.

i) Ejercer cualesquiera otras funciones que se determinen en el Reglamento de Funcionamiento del Consejo Vasco de Universidades o sean inherentes a su condición de Presidente o Presidenta de un órgano colegiado.

2.– En casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal, el Presidente o la Presidenta del Consejo Vasco de Universidades será sustituido por el Vicepresidente o la Vicepresidenta del Consejo Vasco de Universidades.

*Artículo 5.*– Funciones de la Secretaría del Consejo Vasco de Universidades.

1.– Corresponden al Secretario o la Secretaria del Consejo Vasco de Universidades las siguientes funciones:

a) Asistir con voz y voto si la Secretaría del Consejo Vasco de Universidades la ostenta un miembro del mismo o con voz pero sin voto si es personal funcionario a las sesiones tanto del Pleno como de las diferentes Comisiones que se creen en el seno del Consejo Vasco de Universidades, levantando acta de las mismas y de los acuerdos adoptados, certificando y notificando los mismos a los Organismos competentes o interesados en el procedimiento.

b) Presidentearen aginduz aurreko idatz-zatian aipatutako organoen bilkuretarako deialdia egitea eta organo horietako kideei abisatzea.

c) Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak eta Euskadiko Udalen Elkarteak Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko kideak aukeratzeko egiten dituzten izendapenak jasotzea.

d) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko kideek egindako komunikazioak jasotzea, baita jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo bere ardurapean egon behar duten bestelako idazkiak ere.

e) Aferak nola aztertuko diren prestatzea eta bilkuretako aktak baimentzea.

f) Kontsulta, irizpide eta onartutako erabakien ziurtagiriak ematea.

g) Urtero, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren gastuen plana eta jardueren memoria prestatzea.

h) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren Funtzionamenduari buruzko Araudiak ematen dion edo kide anitzeko organoko idazkari den heinean datxekion beste edozein eginkizun.

2.– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko idazkaria kanpoan edo gaixorik badago edo dagokion lanpostua hutsik badago, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko presidenteak izendatuko du haren ordezkaria.

*6. artikulua.–* Kontseiluko kideen eginkizunak.

Hauexek dira Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko kideen eginkizunak:

a) Deialdia behar beste denbora lehenago jasotzea. Deialdiei bilkuretako aztergaien zerrenda eta bertan aipatzen diren gaiei buruzko informazioa erantsiko zaie.

b) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.

c) Botoa emateko eskubideaz baliatzea, beren boto partikularra ematea eta botoaren esanahia eta arrazoiak azaltzea.

d) Galderak eta eskaerak egitea.

e) Esleitzen zaizkien eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren argibideak eskuratzea.

f) Kontseiluko kide izateari datxekion beste edozein eginkizun.

*7. artikulua.–* Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko kideen agintaldia eta kargu-uztea.

1.– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko berezko kideek dagokien karguaz jabetzen diren egunetik aurrera gauzatuko dituzte beren eginkizunak eta, horiek amaitzean, kargua utziko dute.

b) Efectuar la convocatoria de las sesiones de los órganos citados en el apartado anterior por orden de su Presidente o Presidenta, así como las citaciones a los miembros de dichos órganos.

c) Recibir los nombramientos de los miembros del Consejo Vasco de Universidades realizados por el Rector o Rectora de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y por la Asociación de Municipios Vascos.

d) Recibir las comunicaciones de los miembros del Consejo Vasco de Universidades, así como las notificaciones, peticiones de datos, rectificaciones o cualquiera otra clase de escritos de los que deba tener conocimiento.

e) Preparar el despacho de los asuntos, redactar y autorizar las actas de las sesiones.

f) Expedir las certificaciones de las consultas, dictámenes y acuerdos aprobados.

g) Elaborar, anualmente, el plan de gastos y la Memoria de actividades del Consejo Vasco de Universidades.

h) Cualesquiera otras funciones que le asigne el Reglamento de Funcionamiento del Consejo Vasco de Universidades o sean inherentes a su condición de Secretario o Secretaria de un órgano colegiado.

2.– En los casos de vacante, ausencia o enfermedad del Secretario o Secretaria del Consejo Vasco de Universidades, el Presidente o la Presidenta del Consejo Vasco de Universidades nombrará a la persona que le sustituya.

*Artículo 6.–* Funciones de los miembros del Consejo.

Corresponden a los miembros del Consejo Vasco de Universidades las siguientes funciones:

a) Recibir con la debida antelación la convocatoria conteniendo el orden del día de las sesiones y una información sobre los temas que figuren en él.

b) Participar en los debates de las sesiones.

c) Ejercer su derecho al voto y formular su voto particular, así como expresar el sentido de su voto y los motivos que lo justifican.

d) Formular ruegos y preguntas.

e) Obtener la información precisa para cumplir las funciones asignadas.

f) Cuantas otras funciones sean inherentes a su condición.

*Artículo 7.–* Mandato y cese de los miembros del Consejo Vasco de Universidades.

1.– Los miembros natos del Consejo Vasco de Universidades ejercerán sus funciones desde la fecha en que hubieran tomado posesión del cargo que ostenten, cesando al finalizar el desempeño del mismo.

2.– Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 66.1 artikuluak a), e), g) eta h) idatz-zatietan aipatzen diren berezkoak ez diren kideak bi urterako izendatuko dira eta honako kasu hauetan utziko dute kargua:

a) Agintaldia amaitzen bada.

b) Hiltzen badira.

c) Uko egiten badiote. Hori onartzeko ardura haiek izendatu zituen organoari dagokio. Uko-egitea Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko presidenteak jakinaraziko dio izendapena egin zuen organoari eta honek, hala badagokio, beste kide bat izendatuko du.

d) Epai irmo bidez zigortzen badira eta horrek enplegu edo kargu publikorako desgaitzea edo halakorik gabe uztea badakar.

e) Eurak hautatzea edo izendatzea eragin zuen egoera desagertzen bada.

3.– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko kideak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 17.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz ordeztuko dira haiek kanpoan edo gaixorik daudenean, kargua hutsik geratzen bada eta justifikatutako zioren bat dagoenean.

*8. artikulua.*– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren funtzionamendua.

1.– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren Osokoari dagozkio dekretu honen 2. artikuluan zehaztutako eginkizunak.

2.– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren Osokoa gutxienez hiru hilez behin bilduko da, edo presidenteak edo gutxienez bost kidek hala egiteko eskatzen dutenean.

3.– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren Osokoa balio osoz eratzeko, hau da, bilkurak egiteko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko, presidenteak eta idazkariak bertan egon behar dute, edo, bestela, beren ordezkoek, eta, gutxienez, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko kideen erdiak.

4.– Erabakiak botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira.

*9. artikulua.*– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko Batzorde Iraunkorra.

1.– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko Batzorde Iraunkorrak bere gain hartuko ditu Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak programen eta harremanen inguruan egin behar dituen aholkularitza-, informazio- eta sustapen-lanak. Zehazki, txostenak prestatzeaz eta proposamenak egiteaz arduratuko da; horiek, ondoren, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren Osokoari aurkeztuko zaizkio, onets ditzan.

2.– Los miembros no natos a que se refiere el artículo 66.1 apartados a), e), g) y h) de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, serán nombrados por un periodo de dos años y cesarán en sus funciones en los siguientes supuestos:

a) Por expiración del mandato.

b) Por fallecimiento.

c) Por renuncia, cuya aceptación será competencia del órgano que les hubiera nombrado. La renuncia será comunicada a través del Presidente o la Presidenta del Consejo Vasco de Universidades al órgano que realizó el nombramiento, que procederá, en su caso, a efectuar uno nuevo.

d) Por condena judicial firme que comporte inhabilitación o suspensión de empleo o cargo público.

e) Cuando pierdan la condición por la que fueron elegidos o nombrados.

3.– En casos de ausencia o enfermedad y, en general, cuando concurra alguna causa justificada, los miembros del Consejo Vasco de Universidades serán suplidos de conformidad con lo establecido en el artículo 17.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 8.*– Funcionamiento del Consejo Vasco de Universidades.

1.– Corresponden al Pleno del Consejo Vasco de Universidades las funciones especificadas en el artículo 2 del presente Decreto.

2.– El Pleno del Consejo Vasco de Universidades se reunirá, al menos, una vez cada tres meses, o cuando así lo requieran su Presidente o Presidenta o, al menos, cinco de sus miembros.

3.– Para la válida constitución del Pleno del Consejo Vasco de Universidades, a efectos de la celebración de sesiones, deliberaciones y toma de acuerdos, se requerirá la presencia del Presidente o Presidenta y del Secretario o Secretaria o, en su caso, de quienes les sustituyan y de la mitad al menos de los miembros del Consejo Vasco de Universidades.

4.– Los acuerdos serán adoptados por mayoría simple de votos.

*Artículo 9.*– De la Comisión Permanente del Consejo Vasco de Universidades.

1.– La Comisión Permanente del Consejo Vasco de Universidades asumirá las funciones de asesoramiento, informe y promoción de programas y relaciones propias del Consejo Vasco de Universidades. En concreto, se le atribuye la elaboración de informes y la realización de propuestas, que serán elevadas al Pleno del Consejo Vasco de Universidades para su aprobación.

2.– Batzorde Iraunkorra honakoek osatuta egongo da:

a) Unibertsitateen gaietan eskumena duen saileko sailburua, presidente gisa.

b) Unibertsitateen gaietan eskumena duen saileko sailburuak aukeratutako bost kideak.

c) Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea.

d) Euskal unibertsitate-sistemako gainerako unibertsitateetako errektoreak.

e) Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko burua.

f) Hiru foru aldundien ordezkari bat.

3.– Batzorde Iraunkorra hiru hilez behin bilduko da, betiere, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak bilera egin aurretik, edo hala egiteari egoki irizten dionean.

Batzorde Iraunkorra balio osoz eratzeko, hau da, bilkurak egiteko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko, presidenteak bertan egon behar du, edo, bestela, bere ordezkoak, eta, gutxienez, Batzorde Iraunkorreko kideen erdiak. Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko idazkaria izango da Batzorde Iraunkorreko idazkaria eta, hala, honek hitza eta botoa izango du. Hura eta hau bera ez direnean, Batzordeko Iraunkorreko idazkariak hitza baino ez du izango.

Erabakiak botoen gehiengoarekin hartuko dira.

4.– Batzorde Iraunkorreko kideei dekretu honen 7. artikuluan horien izendapenari eta kargu-uzteari dagokionez ezarritakoa aplikatuko zaie.

*10. artikulua.*– Goi Mailako Irakaskuntzaren Europako Sistemaren Bilakaera Batzordea.

1.– Hauexek dira Goi Mailako Irakaskuntzaren Europako Sistemaren Bilakaera Batzordearen eginkizunak:

a) Goi-mailako irakaskuntzaren Europako sistemak duen bilakaeraren jarraipena egitea.

b) Unibertsitateak eta beren ikasketa-planak goi-mailako irakaskuntzaren Europako sistemara egokitzeko neurriak sustatzea eta indartzea.

c) Goi-mailako irakaskuntzaren Europako sistema eraikitzera bideratutako foroetan parte hartzea.

d) Europako unibertsitateen eta euskal unibertsitate-sistemaren arteko harremanak bultzatzea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak goi-mailako irakaskuntzaren Europako esparruan erabat integratzeko prozesua bultzatzearen ondorioetarako erabilgarria izan daitekeen beste edozein eginkizun.

2.– La Comisión Permanente estará compuesta por los siguientes miembros:

a) La Consejera o Consejero del departamento competente en materia de universidades, que será su Presidente o Presidenta.

b) Los cinco vocales designados por el Consejero o la Consejera titular del departamento competente en materia de universidades.

c) El Rector o la Rectora de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

d) Los Rectores o Rectoras del resto de universidades del sistema universitario vasco.

e) El Presidente o Presidenta del Consejo Social de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

f) Un representante en nombre de las tres diputaciones forales.

3.– La Comisión Permanente se reunirá trimestralmente, siempre con anterioridad a la reunión del Consejo Vasco de Universidades, y cuando lo considere oportuno.

Para la válida constitución de la Comisión Permanente, a efectos de la celebración de sesiones, deliberaciones y toma de acuerdos, se requerirá la presencia del Presidente o Presidenta o de persona que le sustituya y de la mitad al menos de los miembros de la Comisión Permanente. Oficiará como Secretario o Secretaria de la Comisión Permanente el Secretario o Secretaria del Consejo Vasco de Universidades, que tendrá voz y voto cuando también sea miembro de la Comisión Permanente y sólo voz en caso contrario.

Los acuerdos serán adoptados por mayoría de votos.

4.– Será aplicable a los miembros de la Comisión Permanente lo dispuesto en el artículo 7 del presente Decreto respecto a su nombramiento y cese.

*Artículo 10.*– De la Comisión de Evolución del Sistema Europeo de la Enseñanza Superior.

1.– Le corresponden a la Comisión de Evolución del Sistema Europeo de la Enseñanza Superior las siguientes funciones:

a) Realizar el seguimiento de la evolución del sistema europeo de la enseñanza superior.

b) Proponer e impulsar las medidas de adaptación de las universidades y de sus planes de estudio al sistema europeo de la enseñanza superior.

c) Participar en los foros encaminados a la construcción del sistema europeo de la enseñanza superior.

d) Fomentar las relaciones entre las universidades europeas y el sistema universitario vasco.

e) Cualesquiera otras funciones que sean útiles a los efectos de potenciar la plena integración de las universidades del País Vasco en el espacio europeo de la enseñanza superior.

2.– Goi Mailako Irakaskuntzaren Europako Sistemaren Bilakaera Batzordea honakoek osatuko dute:

a) Unibertsitateen gaietan eskumena duen saileko sailburua, presidente gisa.

b) Unibertsitateen gaietan eskumena duen sailburuordea.

c) Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea.

d) Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetako errektoreak.

e) Unibertsitateetako edo indarreko legeriarekin bat etorriz sortutako organo baliokideetako gizarte-kontseiluetako presidenteak.

3.– Goi Mailako Irakaskuntzaren Europako Sistemaren Bilakaera Batzordeari 7. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaio.

4.– Goi Mailako Irakaskuntzaren Europako Sistemaren Bilakaera Batzordean Unibertsitateen Euskal Sarearen Azpibatzordea sortuko da. Azpibatzorde horren eginkizuna unibertsitateen euskal sarea sustatzea izango da, irakaskuntza, ikerketa eta kultura-ekimenak koordinatuta eta unibertsitate horietako ikasleen eta irakasleen mugikortasuna ahalbidetuta, euskara eta euskal kultura indartzearren.

Azpibatzordea honakoek osatuko dute:

a) Unibertsitateen gaietan eskumena duen sailburuordea.

b) Unibertsitateetako edo indarreko legeriarekin bat etorriz sortutako organo baliokideetako gizarte-kontseiluetako presidenteak.

*11. artikulua.–* Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko lan-batzordeak.

1.– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak, ezarri zaizkion eginkizunak betetzeko, beharrezkotzat jotzen dituen lan-batzorde zehatzak sortu ahal izango ditu eta horietan parte hartzeko eskatu ahal izango die interes sozial, profesional, akademiko, sindikal edo ekonomikoen ordezkari gisa diharduten eta, beren eskumen, jarduera, ezagutza edo esperientziak aintzat hartuta, dekretu honen 2. artikuluan adierazitako eginkizunak hobeto betetzen lagun dezaketen pertsonei edo erakundeei.

2.– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko lan-batzordeetan hori osatzen duten unibertsitateak egongo dira ordezkatuta.

3.– Sortzen diren lan-batzordeetako buruak eta dagozkien eginkizunak Euskadiko Unibertsitate Kontsei-

2.– La Comisión de Evolución del Sistema Europeo de la Enseñanza Superior tendrá la siguiente composición:

a) El Consejero o la Consejera titular del departamento competente en materia de universidades, que será su Presidente o Presidenta.

b) El Viceconsejero o la Viceconsejera competente en materia de universidades.

c) El Rector o Rectora de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

d) Los Rectores o las Rectoras de las universidades del sistema universitario vasco.

e) Las Presidentas o los Presidentes de los Consejos Sociales de las universidades u órganos equivalentes creados conforme a la legislación vigente.

3.– Será de aplicación a la Comisión de Evolución del Sistema Europeo de la Enseñanza Superior lo dispuesto en el artículo 7.

4.– En el seno de la Comisión de Evolución del Sistema Europeo de la Enseñanza Superior se creará la Subcomisión de la Red Vasca de Instituciones Universitarias. Dicha Subcomisión tendrá como función el desarrollo de una red vasca de instituciones universitarias, a través de la coordinación de la enseñanza, investigación e iniciativas culturales, así como mediante la movilidad del alumnado y profesorado de las mencionadas instituciones universitarias, a fin de potenciar el euskera y la cultura vasca.

La Subcomisión estará compuesta por los siguientes miembros:

a) El Viceconsejero o la Viceconsejera competente en materia de universidades.

b) Las Presidentas o los Presidentes de los Consejos Sociales de las universidades u órganos equivalentes creados conforme a la legislación vigente.

*Artículo 11.–* De las Comisiones de Trabajo del Consejo Vasco de Universidades.

1.– El Consejo Vasco de Universidades, para las funciones que tiene asignadas, podrá crear las Comisiones de Trabajo específicas que estime precisas, y recabar la presencia y participación en ellas de personas y de entidades representativas de los intereses sociales, profesionales, académicos, sindicales o económicos que por sus competencias, actividades, conocimientos o experiencias puedan contribuir al mejor cumplimiento de las funciones encomendadas conforme al artículo 2 del presente Decreto.

2.– En la composición de las Comisiones de Trabajo del Consejo Vasco de Universidades deberán estar representadas las Universidades que forman parte del mismo.

3.– La Presidencia de las Comisiones de Trabajo que se constituyan y las funciones de la misma se determi-

luaren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Araudiarekin bat etorriz zehaztuko dira.

4.– Lan-batzordeek hartutako erabakien berri emango diote Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren Osokoari eta horiei buruzko akta egingo dute.

*12. artikulua.–* Baliabideak.

Dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak unibertsitateen gaietan eskumena duen sailak ematen dizkion giza baliabideak, baliabide materialak eta aurrekontukoak erabili ahal izango ditu.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.–* Zerbitzuagatiko kalte-ordainak.

Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko kideek zerbitzuengatiko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta horren ondorengo aldarazpenetan jasotakoarekin bat etorriz dagozkion kalte-ordainak jaso ahal izango dituzte.

Kalte-ordain horiek jaso arren, kontzeptu berdinengatik ematen den beste edozein haborokin jaso ahal izango dute.

*Bigarrena.–* Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak.

Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko kideak izendatu eta hautatzerakoan, ahaleginak egingo dira gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua izan dadin, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluak ezarritakoaren arabera.

*Hirugarrena.–* Barne-funtzionamenduko araudia.

Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak dekretu honetan eta Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legean jasotako araubide juridiko berrira egokitu behar izango du barne-funtzionamenduko bere araudia. Araudi hori Jaurlaritzaren Kontseiluak onetsi behar du, unibertsitateen gaietan eskumena duen sailak hala proposatuta, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

*Laugarrena.–* Urteko memoria.

Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren urteko memorian unibertsitateko hezkuntzak eta goi-mailako hezkuntzak Euskal Autonomia Erkidegoan duten egoera adieraziko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen da Euskadiko Unibertsitate Kontseilua arautzen duen azaroaren 17ko 315/1998 Dekretua.

narán conforme al Reglamento de organización y funcionamiento del Consejo Vasco de Universidades.

4.– Las Comisiones de Trabajo darán cuenta al Pleno del Consejo Vasco de Universidades de sus deliberaciones y levantarán acta de los acuerdos adoptados.

*Artículo 12.–* Medios.

Para el correcto ejercicio de sus funciones el Consejo Vasco de Universidades contará con los medios humanos, materiales y presupuestarios que le asigne el Departamento competente en materia de universidades.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* Indemnizaciones por razón de servicio.

Los miembros del Consejo Vasco de Universidades podrán percibir las indemnizaciones que correspondan de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio, y en sus posteriores modificaciones.

La percepción de tales indemnizaciones será incompatible con cualesquiera otras gratificaciones que pudieran serles asignadas por los mismos conceptos.

*Segunda.–* Medidas para promover la igualdad de mujeres y hombres.

En el nombramiento y designación de los vocales que formarán parte del Consejo Vasco de Universidades, se procurará una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada, según establece el artículo 23 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

*Tercera.–* Reglamento de funcionamiento interno.

El Consejo Vasco de Universidades deberá adaptar su Reglamento de funcionamiento interno al nuevo régimen jurídico contenido en el presente Decreto y en la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco. Dicho Reglamento será aprobado por el Consejo de Gobierno a propuesta del Departamento competente en materia de universidades y será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Cuarta.–* Memoria anual.

En la memoria anual del Consejo Vasco de Universidades se recogerá la situación de la educación universitaria y superior en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 315/1998, de 17 de noviembre, por el que se regula el Consejo Vasco de Universidades.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko azaroaren 20an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de noviembre de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

## NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

### 6790

AGINDUA, 2007ko azaroaren 30ekoa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, mingain urdina dela-eta zaintza-, babes- eta kontrol-neurriak ezartzen dituena.

Duela gutxi ardien marranta-sukarra edo mingain urdina izeneko animalien gaixotasunaren foku bat aurkitu dute Gipuzkoan. Hori dela-eta, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2007ko azaroaren 2ko aginduaren bitartez, gaixotasuna bazegoela aitortu zen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landa Ingurunearen Garapenerako foru-diputatuaren 2007ko azaroaren 5eko foru-aginduaren bidez, kautelazko neurriak ezarri ziren, lurralde-eremuaren barruan gaixotasuna kontrolatzeko.

Babes-eremua Euskal Autonomia Erkidego osora zabaltzeko beharra dagoenez, agindu honen bitartez, zaintza-, babes- eta kontrol-neurri orokorrak ezarri nahi dira, gai horretan Erkidegoan dagoen araudi berrienaren arabera. Araudiak ez du behartzen abereak geldirik edukitzeko eremu batzuk ezartzea, baizik eta abereak mugitzeko baldintzak arautzen ditu.

Aurreko guztiak ez du galarazten, hala ere, lurralde historikoek neurri zorrotzagoak ezartzea, irailaren 24ko 507/1991 Dekretuan xedatutakoaren arabera. Nolanahi ere, foru-aldundiei kontsulta egin zaie agindu hau egiteko garaian.

Horiek horrela, eta honako hauek kontuan izanik: 1266/2007 (EE) Araudia, ardien marranta-sukarrareikiko sentikorrak diren zenbait abere tokiz aldatzeko kontrolari, jarraipenari, zaintzari eta murrizketei dagokie-

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

### 6790

ORDEN de 30 de noviembre de 2007, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se establecen medidas de vigilancia, protección y control en relación con la lengua azul.

Recientemente se ha detectado en Gipuzkoa un foco de la enfermedad de los animales denominada fiebre catarral ovina o lengua azul. Como consecuencia de ello mediante Orden de 2 de noviembre de 2007, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, se declaró la enfermedad y mediante la Orden Foral de 5 de noviembre de 2007, del Diputado Foral de Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa se establecieron medidas cautelares para el control de la enfermedad en su ámbito territorial.

Siendo necesario extender el área de protección a todo el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la presente Orden tiene por objeto establecer las medidas generales de vigilancia, protección y control, de conformidad con la más reciente normativa comunitaria en la materia, que no obliga a establecer zonas de inmovilización estricta del ganado, sino que regula las condiciones para su movimiento.

Todo lo anterior sin perjuicio de que los Territorios Históricos puedan implantar o mantener medidas más estrictas, conforme a lo dispuesto en el Decreto 507/1991, de 24 de septiembre. En todo caso, las Diputaciones Forales han sido consultadas en la elaboración de la presente Orden.

Así lo dicho, teniendo en cuenta lo dispuesto en el Reglamento (CE) 1266/2007 sobre disposiciones de aplicación de la Directiva 2000/775/CE del Consejo en lo relativo al control, el seguimiento, la vigilancia y las